

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure enpresaren komunikazio-kanala, batez ere, Interneta -app baten bitartez- izango da. Pertsona bakoitzak bere inguruan dituen lan eskaintza guztiak eta bakoitzerako baldintzak egongo dira bertan.

Horrez gain, bertan, sail bat izango dugu erabiltzaileek gurekin harremanetan jartzeko aukera izan dezaten, nahi izanez gero, edota galdera libreak uzteko. Telefono deiez edota emailaz kontaktatu gaitzakete.

Hala ere, aurrez aurre ahokulari batekin elkartzeko aukera izango du gure merkatu-segmentuak. Aski litekeena da, hainbeste aukera izanik laguntza behar izatea. Horregatik, gure enpresak aditu batekin hitz egiteko aukera eskaintzen die bezeroei, aukera guztiak hobekien ebaluatu ahal izateko.

